

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irriero

345

Martxoak 15, 2019



- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Inauterietako argazki erreportajea
- 4-5** Elkano - Lehen mundu bira
- 6** Berri laburrak
- 7** Martxoak 8
- 8** Kirolak: Bidasoako Rallya
- 9** Kirolak: Nieves Alza
- 10** Caser
- 11** Maurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Martxokoak
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



1919 urteko martxoaren 16ean kaleratutako "El Bidasoa" aste-karian eskualdean garai hartan jazotako gertakizunak biltzen dira. Lau orriz osaturiko bost zutabetako aldizkariaren zenbakiari Gabriel Elgorriaga y Dindurraren heriotzaren lehen urteurrena oroitzen duen eskela batekin hasiera ematen zaio. Horren ostean, Nafarroan trenbide elektrikoaren ezarpenaren inguruan eginiko bilera baten gorabeheren berri ematen da, trenbide sarearen eraketak eta bi herrialdeen arteko mugaren loturak Bidasoako eskualdera ekar ditzakeen onuren inguruan hitz egiten da.

Hondarribiko Satarkaren "Udaberria eldu da" olerkiaren ostean, ospitaleko zirujau berria aukeratzeko Udala Batzarrean jarraitutako aukeraketa bileraren berri ematen da. Ondoren, "Thethe" izenordearekin sinaturik, prezioen igoera, arrainaren salmentaren debekua eta higiene faltagatik itxia behar izan den etxe baten inguruko iritzia ematen du aldizkari kolaboratzaile batek.

Kirol kronikan Real Union eta Realaren arteko hurrengo futbol partiduen inguruko nobedadeak komentatzen dira, Bartzelonak Europako txapelketan lortutako emaitza komentatzea gain. Ostean, inauteri giroa garai horretan sortu ohi diren bikote-harremanen arriskuen inguruko gogoeta bat argitaratu zen aldizkarian. "Kaleko kontuak" atalean janari salerosketan izandako murriztapenei arreta eskaintzen zaie, ondoren, "Anotaciones de un Chismoso" atalaren barnean, Hornikuntza Ministerioaren erabakiaren aurrean hiritarrek izandako erantzun falta salatzen.

Irungo Junkaleko Parrokian egingo diren Misio Santuaren inguruko ekitaldien berri ematen da ere. "Ecos de sociedad" atalean ohikoa denez, klase altuko hiritarren ezkontza, gaixotasun eta heriotzen berri ematen den bitartean. Azkenik, guardiako farmaziaren ordutegia, Bilboko Banda eta Orfeoien lehiaketaren nondik norakoak eta Langileen Mugimenduak antolatutako mitin baten inguruko albisteak irakur daitezke.

Aurreko zenbakietan ikusi bezala, hiriko komertzio eta negozio ezberdinen iragarkiek itxiera ematen dio "El Bidasoa" aldizkariaren 185. zenbakiari.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Inauteriak Irunen 2019



Olaizola


Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Lehen mundu biraren istorioa ukitu irundarrarekin iritsiko da zinema-aretoetara

Magallanesez eta Elcano euskal marinela munduri egindako lehen itzuliko abenturak kontatzen dira uztailean zinemetara iritsiko den "Elcano lehen mundu bira" pelikulan. Angel Alonso zuzendariaren gidaritzapean, Irunen egoitza duen Dibulitoon Studio produktoreak ekoiztutako filma da. Zuzendariaren gain, Jone Landaluze ekoizle eragilea eta Juan Alvarez efektu berezietako adituak bezalako profesionalak parte hartu dute pelikula berri honen sorrera prozesuan.



Angel Alonso, pelikulako zuzendaria:

Zergatik erabaki zenuten istorio hau kontatzea?

500 urte betetzen direlako lehen mundu biraren bidaia hasi zenetik eta lehen bidai honek suposatzen zuen epopeia kontatu nahi genuelako.

Eduki historiko eta hezigarri handia duen film da?

Bai, nahiz eta dokumental edo biografia bat ez izan, gertakari historiko bat du oinarri. Hala ere, familia guztiarentzako aproposa izan daitekeen animaziozko film bat da. Mundu-biraren ibilbidea oinarritzat hartzen bada ere, abentura, umore eta maitasun zantzuak dauzka ere.

Animazioa izateak ez du esan nahi soilik haurrentzako pelikula denik?

Sarritan animaziozko pelikulak soilik aurrentzat egiten direla pentsatu ohi da, baina, hori ez da horrela. Animazioa atsegin duen jende heldu asko dago. Kasu honetan, pelikula familiar bat da eta animazioaren bitartez pertsonai honen istorioa ezagutzera eman nahi izan dugu, jende askorentzat euskal marinela honen istorioa ezezaguna zela konturatu ginelako. Horretarako, bidaiako zatirik interesgarrienak hautatu ditugu.

Animazioaren munduan duzun esperientzia lagungarria izan zaizu film honetarako?

30 urte daramatzat animazioan lan egiten, ondorioz, animatzaile bezala pentsatu eta mugitzen naiz. Animazioz gain, abentura zalea naiz eta pelikulan hori islatzen saiatu naiz, pertsonaien lanketa sakona egiteaz gainera.

Jendea harritu egiten da pelikula hau

Irunen ekoiztua izan dela jakiterakoan?

Bai, gaur egun teknologia berriei esker pelikulak etxetik eta edonon egin daitezke. Internet eta teknologiaren garapenak urrun dauden profesionalekin lan egitea ahalbidetzen dute. Hala ere, egia da estudio handiek, aurrekontuari esker, pelikula gehiago ekoizteko ahalmena dutela.

Noiz eta non estreinatuko duzue pelikula?

Martxoaren 23an Malagako festibalean egingo dugu pelikularen aurre-estrenaldia, zinema-aretoetako estreinaldia uztailearen 12an izango den bitartean. Udararen pelikula bat estreinatuko dugun lehenengo aldia izango da.

Pelikula ezagutzera emateko banatzaileen papera oso garrantzitsua da?

Bai, oso pelikula ona egin dezakezu, baina, banatzaile egokiak izan ezean, pelikula

kutxa baten sarturik gera daiteke. Banatzaileek pelikula zabaltzeko bideak irekitzen dizkigute.

Jendearen artean arrakasta izango duen film bat dela uste duzue?

Orain arte egindako filmen artean pelikula handizaleena izan dela uste dut, izan ere, pertsonai kopuru, dekoratu eta konplexutasun tekniko handia izan du.

“Sarritan animaziozko pelikulak soilik aurrentzat egiten direla pentsatu ohi da, baina, hori ez da horrela”

Jone Landaluze, ekoizle eragilea:

Nola bizi izan duzu pelikula honen produkzio prozesua?

Produkzioa luzea izan da, urte luzeetako prozesua izan delako eta, gainera, zailtasun tekniko handiak dituen pelikula bat delako. Urte askotako lanaren ostean, azken 4 urtean produkzioan eman ditugu.

Pelikula bukatuarekin, orain aurre-estreinaldiari begira zaudete?

Bai, orain pelikularen promoziorako material guztiak prestatzen ari gara, izan ere, Malagako Festibalean pelikularen pase

berezia prestatzen gabiltza.

Zein ekarpen egin dezake egungo gizartera duela urte asko gertaturiko istorio baten kontaketa?

Gure asmoa istorio hau familia eta haurren artean ezagutzera ematea da, Elcanoren irudia eta bere lorpena ezaguna egin eta gertakizun honekiko interesa pizteko.

Jatorrizko hizkuntza euskara da, baina, gaztelaniara itzuli dugu estatu mailan zabaltzeko eta ingeleseko bertsioa dugu nazioarteko festibaletan aurkeztu ahal izateko. Berlineko Festibalean, adibidez, nazioarteko banatzaileentzako lehen pasa izan genuen. Orain, beste banatzaile bat-

zuk txinerara itzultzen ari dira.

Jendea proiektuarekiko interesa erakusten ari da?

Bai, interes handia piztu du, bai hemen bai nazioartean. Pelikulak oso istorio erakargarria kontatzen du, pertsonai asko daude eta plano oso politak ditu.

Nola ikusten duzu produkzioaren sektorearen egoera hemen inguruan?

Kalitate eta istorio aldetik aurrerapausoak ematen ari dira. Baina, finantziarako bideak topatzea eta aurrera egitea ez da batere erraza. Hala ere, Euskal Herrian animazioko 4 edo 5 estudio daude eta gauza politak egin izan dira.



Juan Alvarez, efektu berezi teknikaria:

Efektu berezi asko izan dituen pelikula bat izan da?

Bai, izan ere, pelikulako plano ia guztietan ura dugu, batzuetan gainera ur nahasiak, eta efektu berezi asko daude horren atzean. Honelako elementuek lan handia ematen dute eta, normalean honelakoak saihesten badira ere, ezinezkoa zen pelikula honen istorioa urik gabe kontatzea.

Urak protagonismo berezia izan duenez, nola landu duzue?

Ur sinpleen kasuan urak lantzeko programa berezi bat dago. Hala ere, urek interakzio handia behar dutenean simulazioak beharrezkoak dira. Horretako, pi-

lotez beteriko igerileku erraldoiak erabiltzen dira programak talkak harrapatzeko.

Uraz gain, zein beste efektu bereziekin lan egin duzue?

Batez ere, haize-oihalak, mugimenduan dauden objektuen oihalak eta sokak. Simulazioaren bitartez egin diren elementu asko daude eta elementu horiek guztiak efektu berezien parte bezala kontsideratzen ditugu.

Jendeak asko baloratzen ditu pelikula baten efektu bereziak?

Gaur egun efektu bereziak oso errekonozituak daude eta ia horien inguru genero berezi bat sortu da. Jende asko akziozko filmetan efektu bereziak ikusteko asmoz joan ohi da. Nire kasuan, efektu berezi-tako teknikoak naizenez, arreta handiagoz

begiratzen ditut. Hala ere, garrantzitsua da efektu bereziek gehiegizko arreta ez bereganatzea.

Zer-nolako eragina izan du efektu berezien munduan teknologia berrien garapenak?

Orain dela urte batzuk ura eta likidoen simulazioak ia ezinezkoak ziren, ordenagailuek egin beharreko eragiketa matematikoen kopuruarengatik. Horretarako, maketak erabili ohi ziren. Gaur egun, maila ertain edo altuko ordenagailu baten bitartez egin daitezke.

Proiektu hau zure erronka profesional handienetako bat izan da?

Erronka berezia izan da, bi urte eman dituzdalako urak lantzen eta horrelako zer-bait egin dudana lehen aldian izan da.



Neumáticos
txepetxa

NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99

Xanti Zabala "Lexo" bertsolaria omenduko dute martxoaren 16ean

Xanti Zabala "Lexo" bertsolariari omenaldia egingo zaio martxoaren 16ean. Ekitaldia Hondarribiko Itsas Etxean egingo da eta arratsaldeko 19:00etan hasiko da Irun, Hondarribia eta Hendaiako Udalek Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bitartez antolatutako ekimena. Irunabar Elkartea ekitaldiaren zati artistikoaren antolaketaz arduratu da.

Omenaldi ekitaldian zenbait bertsolarik musikaz lagunduriko bertsoak sortuko dituzte eta ekitaldiaren momentu ezberdinetan proiektzioak egingo dira. Sarrera doakoa izango da eta auditorioko edukiera kontrolatuko da helduerako ordenaren arabera, Itsas Etxeko aretoa bete arte.

Xanti Zabala Bidasoa eskualdeko irudi garantzitsu eta eskualdeko bertsolari aktiboenetako bat izan da. Lezon jaio zen 1942 urtean eta Ramoni Elizazu Hondarribiarrarekin ezkondu ostean, Irunen

bizi izan ziren. 60 eta 70ko hamarkadetan zehar ekitaldi askotan parte hartu zuen. Gipuzkoako bertso txapelketako finalean parte hartu zuen 1967 urtean eta Idiazabal Zepai garaikurra irabazi zuen 1976 urtean. 2012 urteko martxoaren 21ean zendu zen.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa eta bertso eskola

2003 urtetik Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak eskualdeko helduentzako Bertso Eskolaren kudeaketaz arduratzen da. Sorreran, bi maila ezberdinetako bi taldeekin lanean hasi ziren,

Bertso Eskola eta eskualdeko Bertsolaritza mugimendua hazten joan da, antolatutako ekintzen kopurua ere handitu delarik. Gaur egun bost taldek osatzen dute bertso eskola eta Irun, Hondarribia eta Hendaiaren geroz eta ekintza gehiago antolatzen dira bertsolaritzaren inguruan.



Krea Bidasoaren 11. edizioa hartuko du Ficobak martxoaren 21ean

Martxoaren 21erako Ficobako Erakustazokan Krea Bidasoa 2019 egingo da Irun eta Hondarribiko Udalek eta Bidasoa Bizirik elkartearen antolakuntzari esker. Pertsona ekintzaile, enpresa eta beste organismo publiko zein pribatuei zuzenduriko 11. edizioa izango da honakoa.

Bertaratutakoak harremanetan jarri, negozio aukerak identifikatu, ezagutzak zabaldu, beste esperientziak, tendentzi eta arrakasta kasuak ezagutzea etab. ahalbidetzen duen elkarketa puntu ba da Krea Bidasoa.

Aurtengo irudia eta mugimendua Maker mugimenduekin erlasionaturik daude. Hau da, garapen industrialerako ahalmenean era pertsonalean zentratutik dagoen mugimendua da, biztanleriaren esku ba-

liabide arruntak eta biztanleria guztientzat eskuragarri egongo diren baliabideak eskaintzen dituen. Horregatik, aurtengo leloa "Hazlo tu mism@ - Egin zerrorrek - Fais-le-toi-même" izango da, aurtengo irudia "KreaTU" izango da eta kartelen sorrera, stand eta bestelako elementuak, kartoi, itsasgarri, guraize eta egunerokotasunean eskura izan ditzakegun bestelako baliabideak izango dira.

Krea Bidasoa jardunaldian sektore ezberdinetako profesionalak harremanetan jartzeaz gain, eraldaketa digitala, nekazaritzako elikagaien sektoreko berrikuntzak, WhatsApp Business aplikazioa, 3D inpresioaren munduko joerak eta negozioan eragina izan dezaketen sentimenduen lanketara bideraturiko hitzaldi eta ekintza ezberdinak antolatu dira.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Martxoaren 8an eta urteko gainontzeko 364 egunetan



Martxoaren 8an Nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko ekitaldi eta kontzentrazioak antolatzen dira munduko bazter ezberdinetan. Era horretan, Irunen urteko egun berezi hori ospatzeko ekintza ezberdinak antolatu dira martxoko hilabetearen zehar, emakumeei ahotsa eman eta haien aldarrikapen eta eskubideei bozgorailua ipintzeko.

Argoia, Uxo eta Bidasoako Elkarteak Feminista bezalako emakume elkarteak Irungo Udalarekin lankidetzan aritu dira martxoaren 8aren inguruko ekitaldi-zerrenda luzea prestatzeko. Horrela, martxoaren 8an goizeko 11:45etan "Egunero izan beharko luke martxoak 8" leloaren azpian kontzentrazioa antolatu zen San Juan plazan. Horren ostean, hiriko erdiguneko kaleak zeharkatu zituen manifestazio jendetsua abiatu zen plazatik.

Eguerdiko ahizpatasun bazkariaren os-

tean, 17:00etan Martxa feminista Irungo Zabaltza plazan elkartu zen, ostean, arratsaldeko 19:00etan Hondarribian Eskualdeko manifestaziora batzeko. 2018 urteko mobilizazio jendetsuen arrakasta errepikatu da aurten ere.

Izan ere, adin ezberdinetako gizon eta emakumeek bat egin zuten Nazioarteko Emakumearen Egunaren inguruan antolaturiko ekitaldi guztietan. Ekitaldi horietan eskualdeko biztanleek ahotsak bateratu zituzten emakumeen eskubideak aldarrikatu eta egunerokotasunean emakumeek jasaten dituzten erasoak saltatzeko.

Martxoaren 8ko mobilizazioez gain, hilabete osoko jarduerak antolatu dira egun honen inguruan. Otsailaren 28an "Irungo Emakumeak Plazara" dokumentala estreinatu zen. Martxoaren 4ean, berriz, "La mujer en la prehistoria" izeneko hitzaldia

antolatu zen. Martxoaren 5ean "Mujer, historia eta sociedad" izeneko antzerkia eta hitzaldiak egin ziren Amaia Kultur Zentroko hitzaldi aretoan Eva Rodriguezen eskutik.

Eta martxoaren 8tik aurrera zer?

Martxoaren 9tik apirilaren 14ra Ana Lunaren "Emakume esanguratsuak" izeneko erakusketa ikusgai egongo da Martindozenea Gaztelekuan. Martxoaren 11ean, berriz, Rosa Gomez idazleak "Escritora del siglo XIX, mujeres a la intemperie" liburua aurkeztuko du Uxo elkartearen egoitzan. Martxoaren 13an Argoiak elkartearen "Vivir ancladas en el como si" hitzaldia entzuteko aukeraz gain, "Figuras ocultas" filmaren inguruko bideo-foruma egingo da San Miguel auzoko Adinekoentzako Gizarte Zentroan.

Hurrengo egunean, martxoaren 14ean, Uxo antzerki taldeak "El lio de Pio" sai-

neteak aurkeztuko du elkartearen egoitzan. Martxoaren 16ean Merche Tanchek ibilaldi historiko bat egingo du hiriko kaleetan zehar. Martxoaren 20ean, asteazkena, "Figuras ocultas" filma proiektatuko da Argoiak elkartearen egoitzan eta "La vida empieza hoy" pelikularen inguruko bideo-foruma antolatuko da Behobiako Adinekoentzako Gizarte Zentroan.

Martxoaren 27an "Mis momentos mis sueños" hitzaldia entzuteko aukera egongo da Palmera Montero guneko 2. aretoan. Azkenik, apirilaren 1ean "Retrato de una sociedad (años 20) a partir de la historia de las mujeres" proiektatuko da Uxo elkartearen hilabete osoko jardueren itxiera emateko. Izan ere, emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko egun eta hilabete zehatza duen arren, ez da ahaztu behar egunerokotasunean edonoren esku dagoela berdintasuneazko eskubideak eta baloreak defendatzeko aukera.



XII. Bidasoako Rallyak eskualdeko errepideak zeharkatuko ditu martxoaren 30ean



XII. Bidasoako Rallyak Bidasoa eskualdeko errepideak zeharkatuko ditu martxoaren 30ean. Sardara Hondarribiko Motor elkarteak zortzi tramoz osaturik egongo den lasterketa antolatu du. Bidasoako Rallya 2004 urtean antolatu zen azkeneko aldiz eta aurtengo lasterketa Euskadi eta Nafarroako Asfaltozko Rally Txapelketetarako puntuagarria izango da.

Sardara Hondarribiko Motor elkarteak Hondarribiko Rallysprintaren antolaketan murgildurik egon da azkeneko 10 urteetan zehar. Jon Amiama lasterketaren antolakuntzako kideak azaldu duenez, Rallysprinta modalitate ezberdina da, izan ere, bertan tramo bakarra dago eta parte-hartzaileak hiru aldiz igarotzen dira bertatik. Rallyan, ostera, 4 tramo ezberdin daude eta 2 aldiz igarotzen dira bakoitzetik.

Martxoaren 22ra arte izango dute parte-hartzaileek Bidasoako Rallyan inskribatzeko aukera. Momentuz 30 auto inskribatu dira eta Jon Amiama antolatzailearen hitzetan, "Inskripzio-muga 80 autotan ezartzea erabaki dugu lasterketaren antolakuntza egokia bermatzeko". Amiamak azaldu duenez, inskripzio-eparen azken astera arte itxaron ohi dute parte-hartzaile askok lasterketan izena emateko.

Bi egunetako egitaraua

Lasterketarekin loturiko lehen ekitaldiak martxoaren 29an, ostiralean, hasiko dira.

Arratsaldeko 17:00etan Hondarribiko Kirol Kaian kotxeei egiaztapen-probak egingo zaizkie araudia eta segurtasun-bermeak betetzen dituztela egiaztatzeko. Horren ostean, arratsaldeko 18:00ak aldera autoak San Pedro kalean ikusgai ipiniko dira. Autoen aurkezpen ekitaldia 20:30etan izango da eta Julian Iantzi ari tuko da aurkezle lanetan.

Martxoaren 30ean, lasterketa egunean, kotxeak goizeko 8:00tan abiatuko dira Hondarribiko Kirol Kaitik, goizeko 9:00etan lehen tramo izango den Aiako Harrietako Ingelesaren Gazteluaren tramoari hasiera emateko. Bigarren tramo Jaizkibelen izango da goizeko 9:45etatik aurrea. Asistentzietatik igaro ostean, goizeko bi tramoak errepikatuko dituzte lasterketako parte-hartzaileek 11:45 (Ingelesaren Gaztelua) eta 12:30etan (Jaizkibelen).

Eguerdiko atsedenaldiaren ostean, autoak Jaizkibelera itzuliko dira 15:25etatik aurrera. Hurrengo tramo 16:05etan hasiko da eta San Martzial mendikoa izango da. Irungo Urdanibia plazan geldialdia egin ostean, goizean bezala, arratsaldeko tramoak bi aldiz errepikatuko dira ere, hau da, 18:05etan (Jaizkibel) eta 18:45etan (San Martzial). Eguna amaitzeko Hondarribiko San Pedro kalean sari-banaketa egingo da.

Ezinbesteko laguntza

Beste txapelketekin gertatzen den moduan, Rally hau aurrera atera ahal izateko



babesleen laguntza ezinbestekoa da. Lasterketako babesle ofiziala Hyundai Oarso Car da, baina, Jon Amiamak gogoratu duenez, "babesle txikien laguntza oso beharrezkoa da ere".

Babesleez gain, lasterketaren egunean batez ere, antolakuntza lagunduko duten boluntarioen lana ere ezinbestekoa da. Jon Amiama antolatzaileak azaldu duenez gutxi gorabehera 120 boluntarioen la-

guntza beharrezkoa izango da lasterketaren egunean errepideak moztu eta komisario lanetan aritzeko, beste zeregin batzuen artean. Amiamak gaineratu du, "lasterketaz gozatu ahal izateko garrantzitsua da ikusleek komisario eta boluntarioen oharrak errespetatzea". Beraz, azkeneko prestaketa lanak amaitu ostean, dena prest egongo da Irun eta Hondarribiko lurra hartuko dituen rally honetaz gozatzeko.



Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!

www.anaeguiazabal.es
info@anaeguiazabal.es

- ✓ Saio indibidualak
- ✓ Egokitutako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak

Carmen Adarraga saria jaso du Nieves Alzak



Argazkia: Estudio Gover

Nieves Alza Hondarribia-Irun Saskibaloia klubeko lehendakari ohiak IV Carmen Adarraga saria jaso zuen martxoaren 7an. Gipuzkoako Foru Aldundiak hondarribiar honek saskibaloia munduan izandako ibilbide profesionala saritu nahi izan du sari honen bitartez. Nieves Alza Bidasoako eskualdean saskibaloia femeninoaren bultzatzaileetako bat izan zen eta kirolaren bitartez Hondarribia-Irun izena nazioartera zabaldu zuen.

Nola jakin zenuen Carmen Adarraga saria jasotzeko aukeratu izan zinenela? Bidai batean nengoen kazetari baten deia jaso nuenenean. Hasieran harrituta gelditu nintzen, Carmen Adarragaren berri nuen arren, bere izena zuen saririk ezagutzen ez nuelako. Bidaiatik itzultzerakoan berriro deitzeko eskatu nion eta ohore handiz saria onartzea erabaki nuen.

Nola sentitu zinen sari jaso zenuen egunean?

Oso egun hunkigarria izan zen, sariak duela urte asko ikusten ez nituen pertsonekin elkartzeko aukera eman dit, hala nola, klub ezberdinetako lehendakari

“Sariak duela urte asko ikusten ez nituen pertsonekin elkartzeko aukera eman dit”

ohiak, jokalaria ohiak, lagunak, familia ... Ez nuen uste ekitaldira hainbeste jende hurbilduko zenik.

Noizbait maila honetako sariren bat jasotzea imajinatu zenuen?

Aurretik Hondarribiko Hiria Urrezko Domina edo Eusko Jaurlaritzaren saria jaso nituen, saskibaloia munduan oraindik era aktiboan nabilenean. Hala ere, oso zirrargarria izan da hainbeste denboraren ostean urte luzeetako lana saritzen duen errekonozimendu hau jasotzea.

Nola murgildu zinen saskibaloia munduan?

Nire ikastetxeko jolastokian ikusi nuen saskibaloiko baloi bat lehenengo aldiz. Es-

“Emakume eta gizonek eskubide berdina daukagu kirol profesionalan aritzeko”

kolan talde bat osatu eta gure afizioa egi bihurtzeko lanean hasi ginen. Garai hartako kideek diotenez, orduan jada talde bat osatzeko nahia nuela argi eta garbi erakusten nuen. Hala ere, Bidasoa klubean kokatzen dut nire kirol ibilbidearen hasiera. Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi ostean, Donostiako klub batean ibili ostean, Hondarribian klub bat sortzea erabaki nuen nire senarrarekin batera.

Kirol arloan emakumeek geroz eta protagonismo handiagoa duten arren, oraindik aldatu beharreko gauzak ikusten dituzu?

Orokorrean aurrerapausoak eman dira, baina, ez beharko litekeen erritmoan. Izan ere, azkenaldian atzerapausoak ematen ari direla uste dut. Adibidez, sinesgaitza

iruditzen zait errealeko neskek gaur egun oraindik hitzarmen lortzeko zailtasunak izatea. Izan ere, emakume eta gizonezko eskubide berdina daukagu kirol profesionalen aritzeko.

Klubaren presidentziatik klubeko jokalariren lorpenak disfrutatzeke aukera izan zenuen?

Noski, momentu on eta txarrak daude, baina, denborarekin, orotzapan onak dira burura etortzen direnak. Lorpenik garrantzitsuena ezerezetik sortu eta, urratsez urrats, Liga Femeninoko lehen mailara iritsi edo Europako Txapelketetan ibiltzea izan zen.

Nola ikusten duzu momentu honetan saskibaloia femeninoaren egoera Gipuzkoa eta Bidasoa mailan?

Gipuzkoa mailan kategorija gorenean dagoen talde bat dugu eta hura laguntzen jarraitzea ezinbestekoa da. Hala ere, beheko kategorietan aritzen diren saskibaloia eskolen papera oso garrantzitsua da, erreferenteak sortu eta hurrek etorkizunean kirola praktikatzeko jarraitzeko aukera izan dezaten.



San Valentin eta inauteriak Caser Residencial egoitzetan



2019 urteko lehen hilabeteetan era askotariko ospakizunak izan dituzte Caser Residencialek Irun eta Hondarrribian dauzkan egoitzetan.

Hain zuzen ere, otsaileko hilabetean, zehazki otsailaren 14ean, Irungo Anakako egoitzan San Valentin eguna ospatu zuten. Maiteminduen eguna ospatzeko, bazkari berezi bat antolatu zuten egoitzaren barnean edo kanpoan bizi diren bikotekideak elkartzeko. Bazkari hau antolatzen zen lehen aldia izan zen eta, guztira, 16 biko-

tek parte hartu zuten. Egoiliarrek asko eskertu zuten haien bikoteekin egun berezi hau ospatzeko eskaini zitzaizen aukera.

Martxoaren hilabetearen hasieran, berriz, Irun eta Hondarrribiko bi egoitzak inauteri giroaz zipriztindu ziren. Anakako egoitzan giro mexikarra izan zen nagusi eta Betharrameko egoitza, berriz, auzo txinatarrean bihurtu zuten. Anakan inauterien inguruan antolaturiko lehen ekintza berezietako bat Lekaenea ikastetxeko Kaldereroen bisita izan zen.

Hortaz gain, bi egoitzetan aurtengo inauterietarako aukeratutako gaiaren inguruko arte-terapia, eskulan eta bestelako tailer bereziak antolatu ziren, honela, egoitzetarako apaingarriak sortzeko. Gainera, inauteri astean zehar bi egoitzetako egoiliarrek Mexiko eta Txinako janari tipikoak haien eskuekin egiteko aukera izan zuten.

Martxoaren 1ean, berriz, Betharrameko egoitzan langileek desfile berezia antolatu zuten eta, horren ostean, Tai Chi emanaldi

berezia izan zuten. Arratsaldean, Anakako egoitzan Nagusilaneke "Pancho colate y les tulipiers" taldeko kideak mexikarrez mozarrotu eta kontzertu berezia eskaini zieten egoiliarrei, honela, inauteriak musikaren erritmora ospatzeko.

Inauteri ospakizunaren ostean, martxoan ohiko tailerrekin heldu zaie berriro ere Caser Residencialaren bi egoitzetan, udaberriaren etorrerarekin berriro ere ekintza berriak antolatzeko esperoan.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Eguzkitza HH

Eguzkitza eskolan Surtekoen geletan haurrak esperimentu asko egiten ari dira, hementxe duzue egindako bat.



PUXIKAK BETETZEN ESPERIMENTUA



ZER BEHAR DUGU: botila bat, puztokia, enbutua, , ozpina eta bikarbonatoa.

NOLA EGIN DUGU: Hasteko, botilan ozpina bota dugu. Ondoren, enbutua erabilia bikarbonatoa sartu dugu puxikan. Puztokia botilan jarri dugunean ez da ezer gertatu. Baina puxika zuzen jarri dugunean...



ZER GERTATU DA: Puztu egin da!! Nahasterakoan CO₂ lortu dugu!

Ez da magia, zientzia baizik!!!

Denborapasak

Zazpi hitz: Afrikako hizkuntzak

X I X E C B A M B A R A L B A I Z
 S C M A Y Q Y B P M A H G T W P X
 D O Q S C J W G Y U A B E P K I U
 V Q M T S C U V T S W D P O C N I
 N G R A U S E A I S V E W C K P U
 N J I F L Z C C R P N I E E C P A
 I A U F O I O M A A C U I D T O E
 C U K I B S E B U T B W X C T U B
 Y O R U B A G R G U F I U E O O U
 S U A J I L I C A H X D E S O E C
 K Z I O C U M S Y D I R E R Y R T
 R I D R N E M F U N H A S J A J M
 T S A S U L X U S S H K U A S U O
 A O U A Q A J L D V U L R Y D H S
 M V N E U G A A I N B U M I R O M
 E N W B M W Y A E X W D Z P A O Y
 U X P R Y J O H V O M G Z A C L J

	8	4	3	7			
2			8	5			6
					9		
		3			2	8	
4	7			8			
	5						4
						7	2
		7				5	
1	4			6			3

Somaliera, susu, arabiera, suajili, fula, bambara, yoruba

Euskaraz, Irunen barrena

Antoniyo ez ukatu

Antoniyo ez ukatu
nexasarekin
ibiltzen zera zu

Ama datorrenian nian
attak jakitten duenian
itxetik kanpora
joan berko dezu

Irungo S.R.A. andereari jaso (1959-VIII-1). (El Bidasoa, 1959-X-3)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Irungo La Salle LH6

Irungo La Salle 6. maila

ALEJANDROHEN ISTORIOAK

Alejandro txikia zenean herri txiki batean bizi zen. Bere aita eta ama herriko ezagunenak ziren, bere baratzeak fruitu eta barazkiak plazan saltzen zituztelako. Jendea, hara joaten zen erostera, ia dendak ez zeudelako eta baratzeak fruitu eta barazki freskoak oso onak zirelako.

Baina bere gurasoek ez zuten Alejandroekin denbora asko pasatzen, denborarik ez zeukatelako, bakarrik asteazkenetan ikusten ziren.

Horregatik, amonaren etxean bizi zen; ez zeukan lagunik, baina bere amonak ondoko bizilagun bat aurkeztu zuen eta denbora pasa eta gero oso lagunak egin ziren.

Urte bat pasa ondoren, bere amona hil egin zen eta bere aitak esan zuen eskola txiki batean bizi izan behar zuela, baina berak ez zuen nahi. Eta bere lagunari komentatu zion. Bere lagunak esan zion:

- Ezin zara hemendik joan Alejandro, ez zaitut berriro ikusiko! Nire etxean geratuko zara!

Eta hor geratu zen denbora asko, baina urteak pasa eta gero dena aldatu zen eta bere familiaren etxera bueltatu zen betirako.

Nala Hernández



ATE DEBEKATUA

Bazen behin Hakim izeneko gazte bat. Duela gutxi, bere aita hil zen eta Hakimek bere aitaren diru guztia jaso zuen. Aberats bihurtu zen, baina diruak ez zion asko iraun, festetan gastatzen zuelako eta laster dirurik gabe gelditu zen.


Bere gauza guztiak saldu behar izan zituen, jateko dirua lortzeko... Baina egun batean bere osaba zaharrarekin topatu zen eta Hakimek osabari laguntza eskatu zion. Osabak bere jauregian lan egitea proposatu zion eta baietz esan zion.

Baina osabak bi baldintza jarri zizkion: lehenengoa, ate debekatua ez irekitzea eta bigarrena, jauregian bizi ziren bost jekeei zerbitzea.

Urteak pasa eta urteak etorri jekeak hiltzen hasi ziren eta Hakim bakar-bakarrik geratu zen... Baina berriro aberatsa zen.

Urte batzuk pasa ondoren Hakimek atea ireki zuen eta tunel batean agertu zen. Tuneletik ateratzerakoan hiru neska, erreginarekin jauregira eraman zuten eta erreginarekin ezkondu zen. Erreginak baldintza bat jarri zion: beraien ate debekatua ez irekitzea.

Zazpi urteetan zehar pozik bizi izan zen, baina egun batean atea ireki zuen eta... dena galdu zuela konturatu zen.



Nerea Piquer



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Haurtxokoak: Haurrek denbora libreaz gozatzeko aukera ezberdin bat



Haurtxokoak Irungo Udalak hiriko umeentzat eskaintzen duen zerbitzu bat da denbora librearen erabilera aktibo, sortzaile, parte-hartzaile eta osasungarria egitea bultzatzeko. Momentu honetan Irunen hiru Haurtxoko daude eta 4 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendurik dagoen zerbitzua da.

Itziar Zabal Irungo Haurtxokoetako koordinatzaileak azaldu duenez, guztira, Irungo hiru auzo ezberdinetan Haurtxoko daude, zehazki, Katea, Lapitze eta Palmera Monteron. Isabel Arrigain da Katea auzoko Haurtxokoko arduraduna, Nahia Mateo Palmera Monteroko Txiki Laben eta Itziar Zabal Lapitzeko Haurtxokoak kudeatzen dituzten bitartean. Nahia Mateoko azaldu duenez, "haurrak eta gurasoak zerbitzu honekin pozik egoteaz gainera, arduradunak zerbitzuak duen harrekin oso pozik gaude".

Auzo bakoitzeko Haurtxokoak asteko egun eta ordutegi ezberdinetan zabalik daude. Katea eta Palmera Moteroko Haurtxokoek astelehen, asteazken eta ostiraletan irekitzen dituzte ateak, Kateako ordutegia arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara eta Palmera Monterokoa 17:00etatik 20:00etara delarik. Lapitzekoa, berriz, asteartetik ostiralera zabalik dago arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Umeek haien denbora libreaz gozatzeko aukera dute Haurtxokoan antolatzen dituzten ekintzen bitartez, era berean, auzoko beste umeak ezagutu, haien artean jolastu eta ezagutza berriak bereganatzeko aukera duten bitartean. Isabel Arrigain Katea auzoko Haurtxokoko arduradunaren hitzetan, "Irungo haurtxoko ezberdinetan oraindik libre dauden plaza batzuk dauzkagu, beraz, familia

irundarrak Haurtxokoetara hurbiltzera gonbidatu nahi ditugu".

Familia ta lagun

Ohiko Haurtxoko ordutegiaz gain, hilabete behin Familia ta Lagun programaren bitartez ekintza bereziak antolatzen dituzte ere. Hiriko haur zein haien familiei zuzenduriko ekintza bereziak izan ohi dira, normalean, larunbatetan antolatzen direnak. Bi orduko iraupena izan ohi duen ekintza da eta, orain arte, bizikleta txangoak, Zumba edo inauteriak direla eta Bidasoako Joaldunak ezagutzeko ekintzak antolatu dituzte.

Hurrengo Familia ta Lagun ekintza martxoaren 16an egingo da goizeko 10:30etatik 12:30etara Belaskoeneako ikastetxean eta judoarekin loturiko ekintza bat izango da. Izen-ematea, dohainekoa izango da, baina, aurretiaz irun.org webgunearen bi-

tartez ekintzan izen-ematea egitea beharrezkoa izango da, plaza kopurua mugatua izango delako.

Ostiral Eroak

Itziar Zabal koordinatzaileak azaldu duenez aurten erronka berri bati heldu diote Haurtxokoen Programan. 9 eta 11 urte bitarteko adina duten haurren behar eta eskakizunei erantzuteko asmoz, ostiraleko ekintzak adin horretako haurrei zuzentzea erabaki dute "Ostiral Eroak" izena duen programaren barruan.

Orain arte errobotika, eskalada eta egurtailerra bezalako ekintzak egin dituzte. Martxoaren 22an, berriz, Haurtxoko bakoitzean Altxorraren Bila jolasa antolatuko dute. 9 eta 11 urte bitarteko edozein haur egongo da ekintza honetan parte hartzera gonbidatuta eta izen-ematea auzo bakoitzeko Haurtxokoan egingo da.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meak auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webgunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IRUN UDAN: Udalekuak, Abentura, kanpamentuak, ekintzak, Gazte Oporraldiak, auzolandegiak, Boluntariora...

Informazio gehiago: www.irun.org/igazte



GAZTEARTEAN EXPO

Erakusketa: Emakume esanguratsuk.

Arista: Ana Luna (Ana Lupe Irigoyen, Hondarribia 1991).

Munduko gune ezberdinetako emakume aktibistei buruzko bilaketa moduan aurkezten da lan hau. Alde batetik, ilustratzaileak proiektu pertsonal bezala hartzen du lan hau, emakume izanik, ahalduntze erraminta bat bezala. Beste aldetik, erakusketa honetan azaltzen diren emakume ezagun eta ez hain ezagunei ikuspena eman nahi zaie, gizarteko arlo ezberdinetan egin dituzten ekarpenak eta lorpenak kontuan izanik.

Obrak egiteko, teknika digital monokromatikoa erabili da, linea organikoak erabiliz, naturako elementuak emakumeen irudiekin nahastuz.

Noiz: apirilak 14 arte.

Ordutegia: asteartetik ostegunera 17:00 a 20:00 eta ostiral eta larunbatik 17:00 a 21:00.

Tokia: Martindozenea Gaztelekua,


17.



ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

Emakume esanguratsuk
Ana Luna

GAZTELEKU MARTINDOZENA



Sorospen eta Lehen Laguntzarako ikastaroa Hondarribian

Data: martxoaren 20tik apirilaren 2ra.

Ordutegia: 18:00etatik 21:00etara.

Tokia: DYA-ko ordezkari (Soroetagan, 6-7, behe - Hondarribia).

Prezioa: 110 €.

Interesatuak: deitu 943 46 46 22ra edo sartu www.DYAgipuzkoa.com

Giza Eskubideen 17. Zinemaldia

Egunak: 2019ko apirilaren 5etik 12ra.


Tokia: Victoria Eugenia Antzokian.

Epaimahaikide izan nahi duzu?

- 18 - 30 urte artean izan behar dituzu.
- Aukera izango duzu UPV/EHU, Deustuko eta Mondragon Unibertsitateko ECTS lortzeko.

Izen emateko epea: martxoak 20.

Informazio gehiago:
irun.org/igazte



MOLDATU HOME
INMOBILIARIA
HOME STAGING

MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA
Etxe bakoitza desberdina da, kontatu lezaguzu nolako den zuri!

Higizinen zerbitzuon kontzeptu berri bat aurkeztzen dugu. Etxebizitzaren munduan aurreratu dugorako eraberraren aurkezpen hori eratu egiteko.

BIZILEKUA saldu nahi ditugu, ez soilik metro karratuak.

Immobilaria Urtzi Goigana eta Encarni Martinez Home Staging enpresak elkarrekin gara, gure enkarguak, espezializistak eta genien bat, guretzat ondu egiteko gogoa uzteruz, abantzen salmenta / alokairu zerbitzu integrala eskaintzeko Home Staging teknikekin. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorago batekin, eraberraren azalera jartzen gara.

<http://www.inmobiliarisurtzigoigana.com/>

661875785
(Urtzi)

656748202
(Encarni)

Irungo kasirearen atzeko ilaran aurki gelaokazu. Jose Ramon Agirreze Aikate Jauna 1 plaza.

<https://encarnimartinez.es/>

Martxoak

17

20

21

Organo eta txistu kontzertua

Zer: Peio Irigoien txistulari irundar eta Ignacio Arakistain organo-jotzaile azpeitiarraren kontzertua.

Non: Junkal Parrokian.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea.

Kontu kontari haurrentzat

Zer: "Barre egiteko ipuinak" Rakel Imazen eskutik.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 17:30etan.

Sarrera: Doakoa.

Hitzaldia: Ricardo Requejo

Zer: Leticia Vergara eta Marina Pintosek Ricardo Requejoren ibilbide artistikoa eta obrak errepassatuko dituzte.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doakoa.



Denborapasen emaitzak

X	I	X	E	C	B	A	M	B	A	R	A	L	B	A	I	Z
S	C	M	A	Y	Q	Y	B	P	M	A	H	G	T	W	P	X
D	O	Q	S	C	J	W	G	Y	U	A	B	E	P	K	I	U
V	Q	M	T	S	C	U	V	T	S	W	D	F	O	G	N	I
N	G	R	A	U	S	E	A	I	S	V	E	W	C	K	F	U
N	J	I	P	L	Z	C	O	R	P	N	I	E	C	C	P	A
I	A	U	F	O	I	O	M	A	A	C	U	I	D	T	O	E
C	U	R	I	B	S	E	B	U	T	B	W	X	C	T	U	B
Y	O	R	U	B	A	G	R	C	U	P	I	U	E	O	C	U
S	U	A	J	I	L	J	O	A	H	X	D	F	S	O	F	C
K	Z	I	O	C	U	M	S	Y	D	I	R	E	R	Y	R	T
R	I	D	R	N	E	M	P	U	N	H	A	S	J	A	J	M
T	S	A	B	U	L	X	U	S	S	H	K	U	A	S	U	O
A	O	U	A	Q	A	J	L	D	V	U	L	R	Y	D	H	S
M	Y	N	E	U	G	A	A	I	N	B	U	M	I	R	O	M
E	N	W	B	M	W	Y	A	E	X	W	D	Z	P	A	C	Y
U	X	P	R	Y	J	O	H	V	O	M	Q	Z	A	C	L	J

5	8	4	3	7	6	2	1	9
2	1	9	8	6	4	7	3	6
7	3	6	1	2	9	4	5	8
9	6	3	8	4	2	1	8	7
4	7	1	6	8	3	9	2	5
8	5	2	7	9	1	3	8	4
3	0	8	4	1	5	6	7	2
6	2	7	9	3	8	5	4	1
1	4	5	2	6	7	8	9	3

22

Hitzaldia: "Baldintza gabeko maitasuna garatu"

Zer: Hitzaldia M.V. Lama Drubgyuren eskutik.

Non: Palmera Montero Guneko 2. aretoan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Librea eta doakoa.

29

Dokulrun

Zer: "Aralar, mundua leku den lurra" dokumentala.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Gonbidapenak: Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatiletan.

Iraupena: 90 minutu.

Hizkuntza: Euskaraz.

31

Kontzertua: "Eurovision sinfonikoa"

Zer: "Eurovision sinfonikoa" kontzertua Irun Hiria Musika Bandaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera orokorra: 7,55 euro.

Salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta antzokiko leihatiletan kontzertuaren egunean bertan.

THE PRINCESS BRIDE



Bizinema
**BANG!
BANG!**

Martxoak 30
- Amaia Kultur Zentroa -

• **Sarrera** 5'35€
(bi pelikula)

17:30h Irekiera
18:00h The Princess Bride
20:30h Starship Troopers

STARSHIP TROOPERS

Sarreren salmenta
Luis Mariano-ko turismo bulegoa
www.irun.org/entradas



ROCK



TINTA

telepizza